# UDAKO KANPAINAN ADINGABEEN AURKAKO INDARKERIA, SEXU-JAZARPEN EDOTA ABUSU KASUETAN JARDUTEKO PROTOKOLOA

Erakundeek adingabeak zoriontsuak izan daitezkeen gizartea eraikitzeko ardura daukagu

Haurrak eta nerabeak babesteko eta zaintzeko legeak, arauak eta gomendioak bete behar ditugu, eta konpromisoa hartu behar dugu adingabeen eta nerabeen babesa gure politiken ardatza izateko

Protokoloak honako printzipio eta helburu hauek bete behar ditu:

- Adingabeak babestuta egongo direla bermatzea.
- Helburua da ez gertatzea indarkeriatzat, jazarpentzat ez sexu-abusutzat har daitekeen inolako jokabiderik Bizkaiko aldundiak diruz-lagundutako udako jardueraetako zuzendaritzako langileen aldetik, ez begiraleen aldetik, ez laguntzako langileen aldetik, ez udako jardueretan parte hartzen duten adingabeen artean.
- Zuzendaritzako langileak eta begiraleak hezkuntzako denbora librean antolatzen diren jardueretan parte hartzen duten haurren eta nerabeen zaintzaileak izango dira. Beraz, lagundu egin behar diete eta beren ongizatea zaindu behar dute.
- Adingabeen eta haien familien edo legezko erantzuleen intimitatea babestea.
- Ahal dela, bikote pedagogikoetan lan egin behar litzateke. Bikotea mistoa bada, hainbat hobe
- Banakako elkarrizketarik egin behar izanez gero, berariazko toki batean egin behar da, eta kanpotik ikusteko moduan. Pertsona bat baino gehiago egon behar lirateke.
- Neurriz eta, behar denean, berehala jardutea.
- Adingabeengan oinarrizko konfiantza giroa sortzea.
- Haurrekin eta nerabeekin argi eta zuzen hitz egitea. Hurbiltze afektiboak beharrezkoak dira, eta heziketa afektiboa oso garrantzitsua da garapen egokirako, baina jaramon egin behar zaio adingabeen nahiari, eta ezin dira behartu afektu-erakustaldiak egitera, nahi ez badute.

1. urratsa: indarkeria, jazarpen eta sexu-abusuen kontrako babesaren koordinatzailea izendatzea.
   Haurrei eta nerabeei indarkeriaren aurrean erabateko babesa emateko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren arabera, indarkeria, jazarpen eta sexu-abusuen kontrako babesaren koordinatzailea edo eskuordea izendatu

behar da. “Udako kanpainako” instalazio bakoitzean bertako zuzendaria izango da.

## 2. urratsa: egoera identifikatzea eta haren berri ematea

Begirale taldeko edonork, baldin badaki edo susmoa badu parte hartzaileren bat indarkeria, jazarpena edota sexu-abusua jasaten ari dela, indarkeria, jazarpena edota sexu-abusuen arloko babesaren koordinatzaileari jakinarazteko betebeharra dauka. Nolanahi ere, informazioa jasotzen duenak babesaren koordinatzaileari helarazi behar dio beti, eta horrek aginduzko txostena egingo du.

## 3. urratsa. Berehalako jardunak

Jakinarazpen hori egin eta gero, babesaren koordinatzaileak informazio eta argibide guztiak jasoko dira berariazko fitxan, idatziz erregistratuko du, eta bildutako argibideak eta gertaeran ustez izan diren pertsonen datuak zehaztuko dira.

Jazarpen-egoera egon daitekeela uste den kasu guztietan, babes-koordinatzaileak jarduera-protokoloaren hasieraren berri emango dio Mahai Teknikoari (dagokion jardueraren txandaren teknikari arduraduna + udako jarduera antolatzen duen elkarte edo erakundeko teknikari arduraduna). Mahai horrek babes-koordinatzaileak egindako txostena aztertuko du, eta gehienez ere 24 orduko epean baloratuko du dagokion esku-hartzea.

## 4. urratsa. Premiazko neurriak

Beharrezko iritziz gero, premiazko neurriak hartuko dira jazarritako pertsona babesteko eta erasorik jasan ez dezan:

- Eragindako pertsonaren berehalako segurtasuna bermatzeko neurriak, bai eta babesa eta laguntza emateko berariazko neurriak ere.
- Jazarlearentzako kautelazko neurriak.

## 5. urratsa. Zehaztu beharreko neurriak eta jardunak

Indarkeriaren, sexu-jazarpenaren eta/edo sexu-abusuaren arloko babes-koordinatzaileak, begirale-taldearekin batera, aldundien mahai teknikoaren aholkularitzarekin, 24 orduko gehieneko epean zehaztu eta finkatuko ditu indarkeria, sexu-jazarpen eta/edo sexu-abusu kasu bakoitzerako neurriak eta jarduketak.

Neurri eta jarduketa horiek bi multzotan bereiziko dira: batzuk instalazioari eta taldeari ezartzekoak izango dira, eta, beste batzuk, gatazkan tartean den adingabeari ezartzekoak. Hartara, bermatuko da bereiz tratatuko direla biktima eta

erasotzailea edo erasotzaileak. Gainerako parte hartzaileentzako berariazko sentsibilizazio jardunak ere ezarriko dira.

Orientabide gisa, neurri eta jarduera hauek proposatzen dira jazarpen-kasuetan esku hartzeko:

- Pertsona jazarriarekin egiteko jardunak: berariaz eta zeharka babesteko eta laguntzeko jardunak, hezkuntza / laguntza emozionaleko jarduerak eta arreta eta gizarte laguntzako estrategiak.
- Jazarlearekin egiteko jardunak: hezkuntza jardunak eta jokabidea aldatzeko eta laguntza pertsonala emateko berariazko estrategiak.
- Behatzaile pasibo izan diren adiskideekin egiteko jardunak: trebetasun sozialak, komunikaziorakoak, emozionalak eta enpatiazkoak garatzeko jardunak; sentsibilizazio kanpainak; eta bitartekotza jarduerak eta parekoek elkarri laguntzeko jarduerak.
- Begiraleekin egiteko jardunak: jarraibideak, egoeran era positiboan nola esku hartu eta jarraipena nola egin ikasteko; atzemate adierazleei buruzko jarraibideak; eta berariazko prestakuntza jarduerak.

Babesaren kordinatzaileak edukiko du aurreikusitako neurriak eta jarduketak ezartzeko ardura eta aldian behin informazioa emango die Mahai Teknikoari, familiei edo parte hartzailearen legezko arduradunei.

### 6. urratsa. Familiei edo legezko arduradunei jakinaraztea

Tartean diren pertsonen ardura duen Asti aldiko Elkarte edo Entitateko teknikari arduradunek, behar besteko kautelaz eta elkarrizketen bidez, kasuaren berri emango diote tartean diren eta/edo jazarpena jasan duten pertsonen familiei edo legezko erantzuleei. Egoerari eta hartu diren neurriei buruzko argibideak emango dizkiete, eta erabateko konfidentzialtasuna bermatuko da kasuaren tratamenduan, eta datuen tratamenduari buruz legedian ezarritakoa beteko da.

Kasuan kasu, beharrezko irizten bazaio, erabaki daiteke gertatutakoaren berri ematea adingabeak babesteko eskumena duen administrazioaren zerbitzuei, aurrez familiari jakinarazita.

## PROTOCOLO DE ACTUACIÓN ANTE CASOS DE VIOLENCIA ACOSO Y/O ABUSO SEXUAL A MENORES EN LA “CAMPAÑA DE VERANO”

Las instituciones tenemos la responsabilidad de construir una sociedad en la que la felicidad de las personas menores de edad sea posible.

Es nuestro deber cumplir la legislación, normativa y recomendaciones que vayan dirigidas a proteger y defender a la infancia y adolescencia, y es nuestra obligación comprometernos y garantizar que la protección de las personas menores y adolescentes sea el eje central de nuestras políticas.

Este protocolo debe observar los siguientes principios y objetivos:

1. Garantizar la protección de los y las menores.

    1.1 Con el fin de prevenir la existencia de algún tipo de conducta que pueda ser catalogada de violencia, acoso y/o abuso sexual por parte del personal directivo, monitorado, personal de apoyo, o incluso entre iguales que participen en la "campaña de verano" subvencionada por Diputación Foral de Bizkaia.
    1.2 El personal directivo y el monitorado ejercerán de guarda con los niños/as y adolescentes que participan en las actividades que se organicen dentro del tiempo libre educativo y por lo tanto se han de responsabilizar de dar asistencia a los y las menores y de velar por su bienestar.

2. Preservar su intimidad y la de sus familias o responsables legales.

    2.1 Se recomienda trabajar siempre que se pueda en parejas pedagógicas. Si son parejas mixtas mucho mejor.
    2.2 Cualquier conversación o entrevista individual deberá de realizarse en un lugar destinado a tal fin y a la vista desde el exterior. Se aconseja estar más de 1 persona.

3. Actuar de manera proporcionada y, en su caso, inmediata.

4. Generar un clima de confianza básica en los menores o las menores.

    4.1 Ser claro y directo en la relación con la infancia y adolescencia. Aunque las aproximaciones afectivas son necesarias, y que la educación afectiva es muy importante para un correcto desarrollo, se tiene que respetar siempre el deseo de los y las menores y no forzarlos a las muestras de afecto si no lo desean.

## Paso 1. Definir la persona coordinadora de protección en temas de violencia, acoso y/o abuso sexual.

Según marca la Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio, de protección integral a la infancia y adolescencia frente a la violencia, se debe definir la figura de la persona coordinadora o delegada de protección en temas de violencia, acoso y/o abuso sexual. Esa persona será la persona directora de cada instalación de la "Campaña de Verano".

## Paso 2. Identificación y comunicación de la situación

Cualquier miembro del equipo de monitorado que tenga conocimiento o sospechas de una situación de violencia, acoso y/o abuso sexual sobre alguna persona participante, tiene la obligación de comunicarlo a la persona coordinadora de protección en temas de violencia, acoso y/o abuso sexual. En cualquier caso, el receptor o receptora de la información siempre informará a la persona coordinadora de protección, la cual realizará el informe preceptivo.

## Paso 3. Actuaciones inmediatas

Tras esta comunicación, la persona coordinadora de protección recopilará toda la información en la ficha específica, registrándola por escrito, especificando la información recogida y los datos de las personas presuntamente implicadas.

En todos los casos en que se estime que pueda existir una situación de acoso la persona coordinadora de protección informará del inicio del protocolo de actuación a la Mesa Técnica (Técnico/a responsable del turno de la actividad correspondiente + técnico/a responsable de la Asociación o Entidad organizadora de la actividad de verano). Esta Mesa analizará el informe elaborado por la persona coordinadora de protección y en un plazo máximo de 24 horas valorará la intervención que proceda.

## Paso 4. Medidas de urgencia

En caso de estimarse necesario, se adoptarán las medidas de urgencia que se requieran para proteger a la persona agredida y evitar las agresiones:

- Medidas que garanticen la inmediata seguridad de la persona afectada, así como medidas específicas de apoyo y ayuda.
- Medidas cautelares dirigidas a la persona acosadora.

## Paso 5. Medidas y actuaciones a definir

La persona coordinadora de protección en temas de violencia, acoso y/o abuso sexual junto con el equipo de monitorado, con el asesoramiento de la Mesa Técnica de las Diputaciones, definirá y fijará en el plazo máximo de 24horas las medidas y actuaciones para cada caso concreto de violencia, acoso y/o abuso sexual.

Entre estas medidas y actuaciones se distinguirá aquellas que sean de aplicación a la instalación y al grupo y aquellas otras que sean de aplicación al menor en conflicto, de forma que se garantice el tratamiento individualizado tanto de la víctima como de la persona o personas agresoras, incluyendo actuaciones específicas de sensibilización para el resto de participantes.

Con carácter orientativo, se proponen las siguientes medidas y actuaciones para cada caso de acoso:

- Actuaciones con la persona acosada: actuaciones de apoyo y protección expresa e indirecta, actividades de educación / asistencia emocional y estrategias de atención y apoyo social.
- Actuaciones con la persona acosadora: actuaciones educativas y estrategias específicas de modificación de conducta y ayuda personal.
- Actuaciones con los compañeros y compañeras observadores pasivos: actuaciones de desarrollo de habilidades sociales, de comunicación, emocionales y de empatía, campañas de sensibilización así como actividades de mediación y de ayuda entre iguales.
- Actuaciones con el monitorado: orientaciones sobre cómo intervenir positivamente en la situación y cómo hacer el seguimiento, orientaciones sobre indicadores de detección, así como actividades de formación específica.

La persona coordinadora de protección se responsabilizará de que se lleven a cabo las medidas y actuaciones previstas, informando periódicamente a la Mesa Técnica, a las familias o responsables legales del participante.

## Paso 6. Traslado a las familias o responsables legales

El personal técnico responsable de la Asociación o Entidad de TL a la que corresponda las personas implicadas, con la debida cautela y mediante entrevista, pondrán el caso en conocimiento de las familias o responsables legales de las personas participantes implicadas y/o afectadas, aportando información sobre la situación y sobre las medidas adoptadas, observando en todo momento confidencialidad absoluta en el tratamiento del caso y respetando lo legalmente establecido en materia de tratamiento de datos.

En su caso y si así se estimara necesario, previa información a la familia, se podría adoptar la decisión de poner los hechos en conocimiento de los servicios de la administración competente en materia de protección de menores